

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

BIZILAGUN BERRIEN HARRERA ETA INTEGRAZIOA

| <i>Amasa-Villabonako ESEP Planean 2018-2022 epealdirako proposatutako helburuak.</i> | <i>Udalak helburu horien inguruan egiten duen balorazioa.</i> |
|--|---|
| Etorkinentzat harrera protokoloa prestatu hizkuntzaren ikuspegitik | <p>Tolosalde mailan ari dira euskualdeko harrera protokoloa prestatzen. Harrera protokolo hori herri bakoitzera egokitu beharko da.</p> <p>Harrera zuzenean egiteko Villabonan gune bat jarriko da martxan. Tolosaldea Garatzenek lizitazioa martxan jarriko du aurten.</p> |
| Etorkinentzat AISA ikastaroak antolatu | <p>Orain arte antolatu izan dira AISA ikastaroak etorri berrientzat. Gaur egun, ikasle hauek hasierako mailan kokatzen dituzte, HABEren aldetik “doakotasuna” hasierako mailakoentzat zabaldu baita</p> |
| Dirua aurreratutako behar izatea traba izan ez dadin, diru-sarreraren arabera erraztasunak eman | <p>Azken deialdietan neurri sozialak jasotzen hasi da Udala baliabiderik ez duten herritarrek euskara ikasteko arazorik izan ez dezaten. Horietako asko, kanpotik etorritako bizilagun berriak ditugu.</p> |
| Tolosaldeko migrazio teknikariarekin eta udaleko gizarte langileekin harremana izan euskara ikasteko dauden aukeren berri emateko | <p>Gizarte langileekin harremana bada, baina migrazio teknikariarekin ez hainbeste.</p> |
| Haur etorri berrientzat errefortzu saioak eskaini | <p>Azken urteetan Tolosaldea Garatzenen eskutik 6-9 urte bitarteko haurrentzat antolatutako errefortzu programaz gain, azken urtean 9-12 urtekoentzat eta DBHko ikasleentzat Udalak hizkuntza errefortzu saioak antolatu ditu.</p> |
| Harrera on moduko egitasmoekin jarraitu | <p>Azken urteetan Tolosaldea Garatzenen eskutik 6-9 urte bitarteko haur migratzaileentzat Harrera on egitasmoa martxan egon da.</p> |